

## BERGARAKO UDALA

### OBRA ETA ZERBITZUETAKO LOREZAINZA BRIGADARAKO LOREZAIN OFIZIALA DEIALDI LIBREAREN BIDEZ KONTRATATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

#### Lehena. Deialdiaren xedea

Honako deialdi honen xedea da lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez **OBRA ETA ZERBITZUETAKO LOREZAINZA BRIGADARAKO LOREZAIN OFIZIALA** kontratatzea, kontratu finkoarekin.

Lanpostua sailkapeneko **C sailkapen-mailan C2 azpitaldekoa** da, eta 10. mailari dagokion soldata-maila du. Halaber, 2. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Lan-kontratua lan-jardun osokoa izango da.

Lanegunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera; adibide gisara, Bergarako jaietan, San Martin jaietan, San Martzial jaietan, Erramu Zapatuan eta horrelako jaietan antolatzen den egitarauak eskatzen duen langile-premiari erantzuteko lan egin beharko du, guztiak egutegian aurreikusiko direlarik.

Oposizioaldiaren fasea bukatu aurretik, deialdi honetaz baliatuz udalak **bigarren edo hirugarren** lanpostu bat betetzea ere erabaki dezake, hutsik geratu dela eta lan eskaintza publikoa argitara emango duelarik aurrez.

#### Bigarrena. Eginkizunak

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

1. Lanpostuarekin eta kategoriarekin zerikusia izanik arduradunak, Obra eta Zerbitzuetako laguntzaileak edo zerbitzuburuak agintzen dizkionak, besteak beste:

- Lorategiak eta berdeguneak sortu eta mantendu.
- Zuhaitzak inausi eta kimatu. Zuhaitzak ipurditik bota.
- Zuhaitzak, zuhaixkak eta landareak inausi.
- Zuhaitzak eta landare desberdinak landatu eta aldiro tutoretu (lotu).
- Zuhaitzen oinak garbitu. Txorkoak (alkorkeak) txukundu.
- Belarra ereiteko edo loreak landatzeko lursailak eta lorategiak garbitu.
- Lorategiak eta gainerako lursailak goldatu.
- Aurreko puntuan aipaturiko languneak ongarritu.
- Soropiletako belarra moztu, palaxuak (setoak) atondu.
- Sasiak ebaki oro har, baita batzuetan herriko nekazaritza-guneetan ere.
- Zuhaitz mota batzuen hazkuntza.

- Zuhaitz eta landareak fumigatu, loreak ureztatu.
  - Zuhaitz-motzondoak kendu (destokonatu).
  - Ofizialon aginduetara jarritako peoi eta langileei aginduak eman eta lanaren jarraipena egin.
  - Abereak ez sartzeko itxiturak egin; aisialdi-guneetan ekipamenduak mantendu.
  - Lorezaintzako erremintak zaindu.
  - Zerbitzuko ibilgailuak gidatu eta mantenuaz arduratu.
  - Lorezaintzako arduraduna ordezkatzeara hura falta denean eta horrela eskatzen zaionean.
  - Lorezaintzako makineriaren mantenimendu mekaniko eta elektrikoa.
  - Ureztatzeko sare automatikoak muntatu eta mantendu.
  - Drainatze-sistemak antolatu eta ipini.
  - Lorezaintzako zerbitzua emateko, errepideetan trafiko-etenak egin ibilgailuen trafikoa antolatzeko.
  - Konpostagune komunitarioak fabrikatu, muntatu, mantendu eta behar duten materialaz (egituratzailea) hornitu.
  - Jasogailu-plataformak maneiatu, hala nola kamioiaren garabia ere altuerako lanak egiteko.
  - Errekurtso prebentiboari dagozkion ardura eta egitekoak, agintzen zaionean.
  
  - Aldamioak muntatu eta desmuntatu.
  - Jaien antolaketarako taulatuak, egiturak, hesiak, toldoak, itxiturak eta bestelakoak muntatu eta desmuntatu.
  - Mendi eta lorategietako ofizialei dagozkien lanak, agintzen zaizkionean.
  - Langileak, materiala eta bestelako baliabideak garraiatzeko ibilgailuak gidatu.
  - Ezohiko egoeretan eta ohiko lanalditik kanpo eskatzen zaionean egin beharreko lanak: elurteak, izozteak, denboraleak, uholdeak, etab.
  - Kualifikazio tekniko txikieneko edo pareko langileak koordinatu, hala badagokio.
2. Deskribatutakoez gain, lorezaintzarako ezarritako helburuak eta udalak abian jarritako proiektuetan lorezaintzarako aurreikusi diren lanetan jardutea, bere lanbide-gaitasunekin eta kualifikazioa duten beste zeregin batzuekin bezala, beharko balitz formazio espezifikoak eman ondoren.
  3. Lanpostuarekin eta kategoriarekin zerikusia izanik arduradunak edo zerbitzuburuak agintzen dizkion beste batzuk.

Hautagaiak honako gaitasun hauek izan behar ditu: oro har planifikatutako Mendi eta Lorategietako ofizialei dagozkien lanak exekutatzeko, antolatzeko, gainbegiratzeko eta egiteko gaitasuna. Laneko arriskuei aurre egiteko eta ingurumena babesteko neurriak hartzeko gaitasuna, indarreko legeriari jarraituz.

### **Hirugarrena. Hautagaien baldintzak eta eskakizunak**

Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko eta, hala badagokie, parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, edo Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea, urriaren 30ean onartutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Halaber, hartu ahalko dute parte espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, bai eta haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere, era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Lan kontratueko lanpostua izanik, aurreko paragrafoetan adierazitako pertsoez gain, Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek ere parte hartu dezakete prozesuan. Kontratatzeko unean egiaztatu beharko dute lanean jarduteko baldintza administratiboak betetzen dituztela.

- b) 2. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa.
- c) Lorezaintzako erdi-mailako LH edo basogintzako erdi-mailako LH gehi 2 urteko esperientzia lorezaintzako ofizial gisa.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- f) B+E gida baimena
- g) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatik 20,65 euroko tasa ordaintzea.

Azterketa egiteko tasa ordaintzeari dagokionean beti transferentzia bidez egingo da eskabideak egiteko aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez espediente zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia adierazi beharko dira.

Transferentzia agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korrante honetan:

KUTXABANK

ES94 2095

5070

79

1061075569

Parte hartzeko, a), b), c) , f) eta g) ataletan jasotako baldintzak betetzea egiaztatzen duten dokumentuak eskaera-orriarekin batera aurkeztuko dira. Kopia izango dira.

### **Laugarrena. Eskabideak aurkeztea**

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira, gehienez ere hogei (20) laneguneko epean –deialdiaren iragarpena GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Eredu ofizial hori oinarri hauei erantsirik doa, eranskin gisa; eta eskuratu ahal izango da, halaber, Bergarako Udaletxeko Bergararren Arreta Bulegoan (BAZean; 8:00etatik 14:30etara bitartean, asteleheneetik ostiralera) eta Udalaren webgunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia.
- Kasua hala bada, 2. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izanaren agiria eta, hala badagokio, hobaria justifikatzen duen dokumentazioa ere.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merzimeginduen fasean ebaluatuko izateko.

Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merzimeginduen ezta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuekin edo instantziak aurkezteko epean egiaztatu/entregatu ez direnak ere.

Dokumentu horiek fotokopiak izango dira eta honako hauek izan beharko dira, gutxienez eta ezinbestekotzat izanik agiri mota eta edukiari dagokienean:

1.- Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

Begarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientearen ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-ziurtagiriak ( betetako funtzioak zehaztuz) edo lan-kontratuak (aplikagarri izan

zaion lan hitzarmenean jasotako kategorien eginkizun edo ardurak jasotzen duen agiriarekin lagunduta) aurkeztu beharko dira.

Kasu guztietan, Gizarte Segurantzak emandako laneko bizitzaren agiria ere aurkeztuko da, bai administrazioan bai enpresa pribatuan egindako lana ziurtatutzat kontsideratu dadin.

2.- Prestakuntza. Erakunde ofizialek emandako ikastaroak edo homologatutakoak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jaso beharko dute baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

c) Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira.

Presentzialki B@Zean (Begararren Arretarako Zerbitzuan; helbidea: San Martin plaza, 1. zk.a, 20570 Bergara) ere aurkeztu ahalgo direlarik.

Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena).

Izan ditzaketen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana, horiek egiaztatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana, edo oinarrietan adierazitakori jarraituz behar beste informazioa ez duten agiriak. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalgo du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko.

#### Datu pertsonalak babestea

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak 2016ko apirilaren 27koak datu pertsonalen tratamendu eta datu horien zirkulazioa libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Begarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharraren baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Halaber, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio

publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre Plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso EZ bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan erreklamazioa jarri ahal izango du izangaiak. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga, 71 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, Udalaren datuen babesaren ordezkariarekin jarri ahal izango da harremanetan, datuen tratamenduarekin lotutako edozein aferara dela eta, honako posta helbidera mezua bidalita: [dbo@bergara.eus](mailto:dbo@bergara.eus).

### **Bosgarrena. Hautagaien onarpena**

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Korporazioko alkate-lehendakariak hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, zeinetan adieraziko baititu, kasua hala bada, baztertzearen kausak. Zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Bergarako Udalaren iragarpenen taulan jarriko da ikusgai, bai halaber Udalaren web-gunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

39/2015 Legearen (*urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen*) 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako zerrenda behin-behineko horretan kanporatutzat ageri diren hautagaiei hamar (10) egun balioduneko epea emango zaie, zerrenda hori GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN publikatzen den egunaren hurrengotik kontaktzen hasita, baztertua gertatzea kausatu duten errakuntzak edo omisioak zuzentzeko.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu. Halakorik izanez gero, ordea, beste ebazpen batean onartuko edo errefusatuko dira, eta haren bidez onetsiko da hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta udalaren iragarki-taulan eta Bergarako Udaleko udal webgunean argitaratuko da.

Ebazpen horren kontra, errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri ahalko da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan – onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda Bergarako Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita–. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsio aurkez dezan. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsioa jarri ahalko da, hilabeteko epean.

### **Seigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea**

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoak kontuan izanda eratuko da: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal

Erakundeak izendatutako ordezkari batek prozesu osoan eta beste batek euskararen probarako hartuko dute parte epaimahaian. Halaber parte har dezake langileen ordezkariak izendatutako kide batek. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udlean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak izendatutako kide banak parte har dezake begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kide kopuruaren erdia eta hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badio, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaitutako ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren webgunean.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkapen horretarako izendatu den bokalak ordezkatu du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kide hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

### **Zazpigarrena. Azterketen fasea (oposizioa)**

Lehen ariketaren deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udalaren iragarpenen taulan emango da argitara, bai eta udalaren web-gunean ere ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)), eta deialdian adieraziko da zein egun eta ordutan hasiko den eta zein lekutan egingo den.

Hurrengo ariketak ere udalaren iragarpenen taulan emango da argitara, bai eta udalaren web-gunean ere ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

Hautagai guztiek batera egin ezin dituzten ariketetan, esku-hartzeko ordena zozketa bidez erabakiko da; horretarako, epaimahaiak osaketa-bilera egiten duenean egingo du zozketa eta izangaiei ezagutzera emango die, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azterketen fasean, gehienez ere **60 puntu** aterako dira eta ondoko ariketa hauek egingo dira:

— **Lehen ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzalea hautagai guztientzat.

Bi atal izango ditu, bata teorikoa eta bestea izaera praktikokoa.

1. Proba teorikoa. **lorezain ofizial lanpostuaren** eginkizunekin, gaitasunekin edo/eta eranskinean jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoa test modukoa izango den edo ez, eta nola puntuatuko den.

Proba honetan gehienez **10 puntu** lortu ahal izango dira. Prozesuan aurrera jarraitzeko derrigorrezkoa izango den puntuazioa epaimahaiak



erabakiko du eta azterketa-egunean emango du jakitera, baina ez da inoiz izango % 50etik beherakoa.

2. Proba praktikoa: **lorezain ofizialaren lanpostuaren** eginkizunekin eta gaitasunekin zerikusia du(t)en proba(k) praktikoa egin beharko dituzte.

Proba honetan gehienez **25 puntu** lortu ahal izango dira. Prozesuan aurrera jarraitzeko atera beharreko puntuazioa epaimahaiak erabakiko du eta azterketa-egunean emango du jakitera, baina ez da inoiz izango % 50etik beherakoa.

- **Bigarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzalea hautagai guztientzat: lanpostuaren profilarik egokitzeari buruzko probak.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesional eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzerak bideraturiko gaitasun edo/eta nortasunari buruzko proba psikoteknikoak egitea izango da. Probek elkarrizketa ere izan dezakete.

Bigarren ariketa honi **hogeita bost (25) puntu** emango zaizkio gehienez, eta proba bakoitzari emandako puntuazioren % 50a edo /eta guztira gutxienez 12,5 puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko. Ariketaren informazioa eta atera beharrekoen gutxienez proba egin aurretik emango da jakitera.

- **Hirugarren ariketa:** Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egingo dira. Derrigorrezkoa eta baztertzalea hautagai guztientzat. Gai edo Ez gai baloratuko da.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 2. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria aurkezten diotenen.

Honako hauek dira euskara-tituluen arteko baliokidetzak jasotzen duten araudiak: 297/2010 Dekretua –azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena– eta 47/2012 Dekretua –apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzei salbuesteko dena–.

2. hizkuntza-eskakizuna izatea honela ziurtatu ahal da:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat egiaztatu izana frogatzen duena.
- Baliokide diren beste ziurtagiriak, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzei indarrean dagoen araudiak diotenaren arabera.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak Bergarako udalerrian edota HAEE-IVAPEk horretarako zehaztutako beste edozein tokitan egin ahal dira. Nolanahi ere, proba horiek egitearen ondorioz hautagaiei sor zaizkiekeen joan-etorriko gastuak, mantenukoak eta abar beraien kontura izango dira.

### **Zortzigarrena. Azterketen fasearen jardunbidea**

Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki ahal dezake ariketak 7. oinarrian adierazitako hurrenkeraz bestela egitea, bai eta egun berean probetako bat baino gehiago egitea ere; kasu horretan, aurreko proba gainditu dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.

Baldin eta hautagaien bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdira agertzen ez bada hark adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren, hauta-prozesutik kanpo geratuko da erabat.

Epaimahaiak ariketa egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta eskabidean hala adierazi dutenei, gainerako parte-hartzaileen aukera berberak izan ditzaten, beti ere hori eginda probaren edukia hutsaltzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila jaisten edo kaltetzen ez bada.

Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta udalaren web-gunean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) argitaratuko du ariketa gainditu duten hautagaien lista.

Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketen faseko ariketa idatzien edukiaren konfidentziasuna berma dadin, bai halaber ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzenduak izan daitezzen.

### **Bederatzigarrena. Merezimenduen fasea (lehiaketa)**

Merezimenduen fasean guztira **gehienez ere 27 puntu** lortu ahalko dira.

Epaimahaiak ondorengo merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta batera agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta betiere eragin guztietarako eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

—Bete behar den lanpostuarekin erlazionatuta egindako lana —hau da, lorezaintzan ofizial lanak—: Gehienez ere **10 puntu arte**, eta hileko gehienez ere 0,15 puntu.

—Bete behar den lanpostuaren funtzio batzuekin egindako beste lana (lozezaintzako peoia, mendiko edo basoko peoi lanak edo parekoak): Gehienez ere **5 puntu** arte, eta hileko 0,08 puntu.

Merezimendu horiek egiaztatu behar diren egiaztagirietan betetako funtzio guztiak zehaztu beharko dira, eta ez badira lanpostuaren eginkizunen artean jasotako gehienak aipatzen, epaimahaiak erabaki ahal izango du nola baloratu.

Gizarte Segurantzako Kotizazio-agirietan baloratuko deiren betekizunen kategoriari dagokion kotizazio-maila izan beharko da eta horren arabera baloratuko da.

Enpresako gutxienez lau (4) hilabeteko lan-esperientzia jarraitua egin izana izan beharko du baloratua izateko. Jarraitua ulertuko da lan berdinerako edo lanpostu berdinerako lan kontraturen artean 15 egun baino gutxiagoko etenaldia ematen badira. Kasu honetan denak kontuan izango dira (4 hilabetera iristen badira).

—**Formazio osagarria**: gehienez ere **7 puntu** arte.

Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den **formazio osagarria** baloratuko da, beti ere 10 ordu edo gehiagokoak balira.

Ikastaroaren orduko 0,01 puntu emango zaio.

Horren guztiaren eraginetarako erakunde ofizialek emandako ikastaroak edo homologatutakoak izan beharko dira.

Baloratuko direnak izango dira :

- Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko formazioa izatea, lanpostuaren eginkizunen arloko arriskuekin zerikusia izango balu eta, beti ere, enpresa homologatuek emandakoak izan balira. Atal honetan gehienez ere **3 puntu** arte emango dira eta ikastaroko gehienez ere 0,5 puntu.
- Lanbide-heziketan lorezaintzan goi mailako edo teknikari titulua izatea, **2,5 puntu.**
- Motozerrak edo lorezaintzako eta basoko tresneriaren erabilerarako egindako ikastaroak: Atal honetan gehienez ere **3 puntu** arte emango dira eta ikastaroko gehienez ere **0,5 puntu.**
- Fitosanitarioak aplikatzeko karneta izatea: **2,5 puntu.**
- Errekurtso prebentiboa izateko prestakuntza izatea: **5 puntu arte.**
- Lanpostuaren eginkizun zehatzekin zerikusia duten beste formazio osagarriak: egitekoen inguruan edo erabili daitezkeen teknika edo exekuziorako lagungarri den inguruko formazio espezifikoa. Atal honetan gehienez ere **3 puntu** arte emango dira eta ikastaroko gehienez ere **0,5 puntu.**

### **Hamargarrena. Epaimahai kalifikatzailearen proposamena**

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Berdinketa kasuan, emakumeei emango zaie lehentasuna, emakumeak % 40 baino gutxiago direnean kategoria honetan.

Berdinketak jarraituz gero honako hurrenkerari jarraituz erabakiko da lehentasuna:.

- a) Oposizioaldiko bigarren ariketan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) Formazio osagarrian puntuazio handiena izatea.
- d) Bete behar den lanpostuarekin erlazionatuta egindako esperientzia gehien izatea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta, puntu gehienekotik gutxienera.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du, deialdian iragarritako lanposturako kontratatze proposamenarekin.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxienera baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe aldarrika dezake.

Epaimahaiak ezingo ditu inolaz ere deialdiko lanpostua baino izangai gehiago proposatu, lan-poltsarako izangaien kasuan izan ezik.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, behar diren kontratazioak egin ditzan.

Proposatua izan den izangaiak, hautatutako izangaiaren proposamena argitaratutakoan jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, eta lanean hasteko kontratua sinatu beharko du.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkeztu ez baditu, edo kontratua sinatuko ez balu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa-oposizioa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

### **Hamaikagarrena. Praktiketako eta prestakuntzako epealdia, eta izendapena**

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari kontratu finkoa egingo dio, baina legeak aurreikusitako frogaldia izango du, hau da, bi hilabetekoa.

Udaleko plantillako langileetarikoa batek erretiro partziala aitortzeko eskaera egin eta horregatik udalak txandakako kontratua egiteko premia balu, kontratu mugagabea egingo dio egingo dio, horretarako aurretik bete behar diren baldintzak betetzea derrigorrezkoa izanik. Hori dela eta kontratua sinatzeko eguna erreferentzia hartuta eta aurreko bi lanegunetan gutxienez enplegu bulegoan langabetu gisa eta lan eske inskribatuta egongo da. Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari kontratu mugagabea egingo dio, finkoa bihurtuko dena automatikoki txandakako kontratuari mugagabea izateko dagokion epea pasatu ondoren (jubilazio osoari dagokion data eta bi urtera).

Legeak aurreikusitako frogaldia izango du, hau da, bi hilabetekoa.

Frogaldiak hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du eta horren azken balorazioa "Gai/Ez-gai" izango da.

Frogaldiaren arduradunak ezarritako kalifikazioa epaimahai kalifikatzaileari bidaliko dio eta honen proposamena txostenean jasotakoarekin bat ez baldin badator, arrazoitua izango da. Halaber, eta kalifikazio-txostena langilearen aldekoa ez bada, langileak aukera izango du epaimahaiaren aurrean alegazioak egiteko.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion zerbitzuburuak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- Lantaldere moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun-egoeratik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Kontratua egin aurretik Bergarako Udaleko mediku zerbitzuak *bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko* behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio, eta ukatuko balitz edo ez dela gai edo gaitasun mugatuak balitu kontratatua izateko eskubideak galduko ditu.

### **Hamabigarrena. Gorabeherak**

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

### **Hamahirugarrena. Lan-poltsa**

Lanpostua eskuratu ez baina oposizioa gainditu duten hautagaiekin, lorezaintza eta mendi eta lorategietako lantaldean aldi baterako izaerarekin kontratazio premiei erantzuteko lan-poltsa osatuko da.

Lan-poltsa hau(ek) indarrean sartuko d(ir)a ebazpenarekin batera eta udalean beste lanpostuetako lan-poltsa propioak osatzen diren unean hauek indargabetu edo haien osagarri bihurtuko dira.

Lan-poltsa hauetatik kontratatzen direnei 2 hilabeteko frogaldia egingo zaie eta gaitasunik erakusten ez badute kontratua bertan behera utzi eta hurrengo kontratazio premia berdinei dagokionean lan-poltsatik kanpo aitortuko dira.

Lan-poltsak(ek) urtebeteko balioa izango du(te) –indarrean jartzen denetik kontatzen hasita–, baina urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, Antolakuntza Batzorderen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendurako, Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretuaren bidez onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiari jarraituko zaio (eranskin gisa dago jasota). Salbu udalak lan-poltsen funtzionamendurako araudi berri bat onartzen badu, kasu horretan araudi hori aplikatuko baita.

### **Hamalaugarrena. Inpugnazioak**

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

### **Hamabosgarrena. Dokumentazioa itzultzea**

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, salbu eta kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek.

Hautaketa-prozesua bukatu eta hiru (3) hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

## **ERANSKINA**

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak: 14. artikulua.
2. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratu motak (12. artikulutik 18. artikulura).
3. Tokiko administrazio-prozeduraren berezitasunak. Dokumentuen sarrera eta irteera erregistroa: Dokumentuak aurkezterakoan bete beharrekoak.
4. Administrazio publikoen erantzukizuna. Ondare-erantzukizuna. Erantzukizunaren egintza. Sektore Publikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. eta 34. artikulua.
5. Intimitateari buruzko eskubide konstituzionala. Abenduaren 8ko 3/2018 Lege Organikoaren 4. eta 5 artikulua.
6. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak: Tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna.
7. Lorezaintza lanak. Urtean zehar egin beharreko lanen plangintza orokorra.
8. Landareen egitura: atalak eta funtzioak.
9. Lurzorua: motak, funtzioak, mantentze lan nagusiak.
10. Landare eta zuhaitz espezieak ezagutzea.
11. Ureztatze sistemak: Diseinua, motak eta ezaugarriak
12. Belarra: lorezaintzan erabilitako espezieak, landatzea edo aldatzea eta mantentze lanak egitea.
13. Zuhaitzak, zuhaixkak eta landare hesiak aldatzea. Denboraldiko landareak eta iraunkorrak direnak landatzea.
14. Zuhaitzen eta zuhaixken kimaketa eta hesi mozketak: Motak, egitura, zainketa, egutegia. Zuhaitz eta zuhaixkak transplantatzea. Zuhaitziak berritu. Faseak.
15. Ongarriak. Konposta. Konpostaje prozesua. Konpostaren erabilera eta loregintza. Motak eta baliabideak.
16. Landare jatorria ez duten lorategiko elementuen kontserbazioa.
17. Lorezaintzako makineria eta tresneria: Motak. Zainketa eta erabilera. Lorezaintzan. Segurtasun-elementuak makineria eta erremintak erabiltzean, bai eta materialak kargatzean eta garraiatzean ere.
18. Garaiko lore-motak. Erabilpenak eta loraldia.
19. Lorezaintzaren inguruko herritarren eskaeren kudeaketa.
20. Bergarako udalerria: Udal-mugapea. Herriko lorategi eta berdeguneak: izena, kokapena, ezaugarriak.
21. Izurrite eta gaitz nagusiak. Aurkako tratamenduak. Tratamendu biologikoak. Herbizidak. Endoterapia. Legedia.

22. Segurtasuna eta osasuna lorezaintza-lanetan: lorategiak mantentzeko eragiketa nagusien ondoriozko arriskuak. Norbera babesteko ekipamenduak.
23. Outlookaren oinarritzko erabilera: agenda eta bileren kudeaketa.

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

### BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA LIBRE PARA LA CONTRATACIÓN DE UN/A OFICIAL JARDINERO/A PARA LA BRIGADA DE JARDINERÍA DE OBRAS Y SERVICIOS

#### **Primera. Objeto de la convocatoria**

Constituye objeto de la presente convocatoria la contratación, mediante concurso-oposición, con contrato fijo, de **UN/A OFICIAL JARDINERO PARA LA BRIGADA DE JARDINERÍA DE OBRAS Y SERVICIOS**.

El puesto de trabajo está incluido en el grupo de clasificación **C, subgrupo C2**, con un nivel retributivo 10. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 2, con carácter preceptivo.

El contrato laboral será de jornada completa.

El calendario y horario laboral serán los fijados por el ayuntamiento cada año, adecuándose siempre a las características del puesto y a las necesidades del servicio. Por ejemplo, deberá trabajar para cubrir las necesidades de personal del programa de fiestas de Bergara, fiestas de San Martín, fiestas de San Marcial, Sábado de Ramos y similares, con previsión de todas ellas en sus calendarios.

Antes de finalizar la fase de oposición, el ayuntamiento podrá acordar valerse de esta convocatoria para la provisión de **un segundo o tercer puesto de trabajo**, tras quedar vacantes y previa publicación de la oferta de empleo público.

#### **Segunda. Funciones**

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, entre otras, las siguientes:

1. Las tareas que le sean encomendadas por su responsable, por el/la asistente de Obras y Servicios o por la jefatura del servicio en relación con su puesto y categoría, entre otras:
  - Creación y mantenimiento de jardines y zonas verdes.
  - Poda y recorte de árboles. Tala de árboles.
  - Poda de árboles, plantas y arbustos.
  - Plantación de árboles y diversas plantas y tutorización (sujeción) periódica de los mismos.
  - Limpieza de las bases de los árboles. Limpieza y acondicionamiento de alcorques.



- Limpieza de jardines y de terrenos apropiados para la siembra de césped o cultivo de especies florales.
- Labrado de jardines y demás terrenos.
- Abonado de todas las zonas de trabajo referidas en el punto anterior.
- Corte de césped, arreglo de setos.
- Desbroce de maleza en general, así como ocasionalmente en zonas agrícolas del municipio.
- Crianza de algunos tipos de árboles.
- Fumigación de plantas y árboles, riego de flores.
- Destoconado de árboles.
- Dar órdenes a peones y trabajadores encuadrados bajo el mando de oficiales y realizar el seguimiento de su trabajo.
- Realización de cerramientos para impedir el paso de animales; mantenimiento de los equipamientos en las zonas de ocio.
- Mantenimiento de las herramientas de jardinería.
- Conducir los vehículos del servicio y responsabilizarse de su mantenimiento.
- Sustituir al encargado/a de jardinería en su ausencia y cuando así se le requiera.
- Mantenimiento mecánico y eléctrico de la maquinaria de jardinería.
- Montaje y mantenimiento de las redes automáticas de riego.
- Organización e instalación de los sistemas de drenaje.
- Ordenar la interrupción del tráfico de vehículos en las carreteras para la prestación del servicio de jardinería.
- Fabricación de los puntos de compostaje comunitario, con montaje, mantenimiento y suministro de material (estructural) necesario.
- Manejo de plataformas elevadoras, así como la grúa del camión para trabajos en altura.
- Responsabilidades y funciones correspondientes al recurso preventivo, cuando se le encomiende.
- Montaje y desmontaje de andamios.
- En la organización de fiestas, montaje y desmontaje de tablados, estructuras, vallas, toldos, cierres y otros.
- Trabajos correspondientes a oficiales de Montes y Jardinería, cuando se le encomienden.

- Conducción de vehículos para transporte de personal, material y otros recursos.
  - Trabajos que se le requieran en situaciones excepcionales y fuera de su jornada ordinaria de trabajo: nevadas, heladas, temporales, inundaciones, etc.
  - Coordinación de personal de igual o menor cualificación técnica, en su caso.
